



## Deklarazioa

### "Iraunkortasuna erein familia fekazaritzaren bizi-ekarpena areagotuz"

[Munduko Landaguneak](#) antolatutako [Familia-Nekazaritzari buruzko Mundu-Konferentziak](#) 55 herrialdeetatik etorritako 200 parte-hartzaile baino gehiago elkartu izan ditu martxoaren 19etik martxoaren 21erarte. Bost kontinenteetako familia-nekazaritzaren arloko erakundeen, gobernuen, nazioarteko erakundeen, ikerketa-zentroen, fundazioen eta beste eragile batzuen goi-mailako 200 ordezkari baino gehiago bildu dira konferentzian.

Klima-, elikadura- eta ingurumen-krisien testuinguruan hazi diren erronkei aurre egiteko, beharrezkoak dira aliantza eta erantzun global eta bateratuak, esparru legal eta instituzional sendoetan zein konpromiso politikoetan oinarriturikoak. Elikadura-sistema berriek sustatu behar dituzte ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarriak, elikadura- eta nutrizio-segurtasuna eta baita berdintasuna eta gizarteratzea bultzatzen duten aukera ekonomiko berriak. Betiere hiri- eta landa-eremuen arteko sinergiak sustatuz.

Aintzat hartzen dugu familia-nekazaritzaren funtsezko eginkizuna planetaren jasangarritasunean: herri indigenak, komunitate tradizionalak eta artzaintzan, abeltzaintzan, arrantzan, mendi-nekazaritzan dihardutenak, baita beste elikagai ekoizpenetan dabiltzanak. Familia-nekazaritzak garapen ekonomikoari egiten dion ekarpen katalitikoa azpimarratu nahi dugu, kalitatezko elikagai osasungarrien ekoizpena bermatuz, lurralde-oreka ziurtatuz, baliabide naturalak modu jasangarriagoan kudeatuz, ezagutzak eta jakintzak zainduz, eta garapen inklusibo eta erresilientea lortuz.

Familia Nekazaritzarako Nazio Batuen Hamarkada 2019-2028 martxan jarri zenetik bost urte igaro dira eta aurrerapauso esanguratsuak egin ditugu. Hala ere, erronka izugarriak pairatzen jarraitzen du familia-nekazaritzak. Erronka hauek gainditzeko, familia-nekazaritzaren funtsezko eginkizuna gehiago nabarmendu behar dugu, bere potentziala indartzeko sostengua areagotuz, klima-krisiari eta elikadura-sistemen eraldaketari aurre egiteko.

Gasteizen, lurralde-, nazio- eta eskualde-mailako ekimen eta esperientzia arrakastatsuak ezagutarazi eta eztabaidatu ditugu. VIII. Konferentziak aukera eman du datozen bost urteetan Hamarkada bultzatzeko eta



planetaren eta familia-nekazaritzaren desafio berriei aurre egiteko lehenetasunezko ekintzak zehazteko:

1. **Familia Nekazaritzak** elikadura-sistema jasangarri, inklusibo eta erresilienteetarako eraldaketa-bultzatzaile gisa duen eginkizuna areagotzeko konpromisoa berresten dugu. Nazio Batuen Familia-Nekazaritzako Hamarkada 2019-2028 nazioarteko adostasunerako tresna gisa berresten dugu, baita Ekintza Globaleko plana politika globalak, eskualdekoak eta nazionalak bideratzeko gida gisa.
2. **Familia-nekazaritzaren dimentsio aniztasuna eta funtsezko agendekin duen lotura** (elikadura, nutrizioa, osasuna, lurra, biodibertsitatea, klima, pobrezia eta desberdintasuna) aintzat hartzen dituzten **politika bateratuak** sustatzera deitzen dugu. Ezinbestekoa da politikak baliabide egokiekin eta arau-esparru sendoekin babestea, parte-hartze eta -elkarrizketa sozialeko mekanismoak izan ditzaten. Erakunde publikoen, familia-nekazaritzako erakundeen eta beste eragile guztien gaitasunak eguneratzeko, berritzeko eta indartzeko unea da.
3. Azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela **Familia Nekazaritzako Batzorde Nazionalak** eragile anitzeko elkarrizketa-plataforma gisa sendotzea, herrialdeetako politika publikoak eguneratu eta hobetzeko, agenden arteko lotura sendotzeko, praktika onak areagotzeko eta egungo erronkei aurre egiteko. Funtsezkoa da elkarrizketa politikoan duen zeregina eta politika publikoetan duen parte-hartzea zabaltzea, emaitza esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak emanaz.
4. Gasteizen aurkeztutako **familia-nekazaritzaren jasangarritasun ekonomikoa** bermatzeko ekimen arrakastatsuak ere ospatzen ditugu. Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuna bermatzen lagunduko duten elkartegintza, kooperatibismoa, bidezko dirusarreraren bermea eta balio-kateen irisgarritasuna nabarmentzekoak dira. Ekimen horiek areagotu eta sakondu behar ditugu familia-nekazaritzari bititza luze eta duina eta lurraldeei dinamizazio ekonomikoa bermatuko dieten politiken bidez.
5. **Landa-eremuko gazteen lidergoa** nabarmendu nahi dugu, elikadura-sistemen eraldaketan, lan-sorkuntzan eta belaunaldi



ordezkapenean duten eragin handiagatik. Familia-nekazaritzako Gazteen Talde Nagusiak (FF YCG) aurkezten dituen lehentasun eta proposamenak berresten ditugu, politika publiko eraginkor eta berritzaileak bultzatzeko. [Nekazari Gazteen Nazioarteko Eguna izendatzeko proposamena](#) babestera bultzatzen dugu, landa-eremuko gazteek etorkizunerako elikadura integratzaile eta jasangarria eraikitzeke duten funtsezko eginkizuna bultzatu eta zabaltzeko.

6. Premiazkoa da **landa-eremuko genero-desberdintasunak murriztea** eta landa-eremuko emakumeen ahalduntzea bultzatzea, emakumeen autonomia eta eskubideak sustatzera bideratuta dauden antolakuntza eta berariazko politika publikoen bidez. Bereziki, lurraren jabetza eta baliabide ekonomiko eta finantzarioak eskuratzeko politikak bultzatu beharko dira. Brasiliari ospatu zen [Landa-eremuko emakumeen nazioarteko II. Topaketan](#) definitu ziren lehentasunak babesten ditugu, zeinak VIII. Mundu-konferentzian ere berretsi izan diren.
7. **Familia-nekazaritzak klima-aldaketaren eraginak** arintzean eta haiei aurre egiteko egokitzapenean duen **funtsezko eginkizuna aitortzen dugu**. Besteak beste, biodibertsitatearen kontserbazioa eta ekoizpen- sistema erresiliente eta inklusiboetarako trantsizioa, agroekologia eta bestelako ekoizpen jasangarriak. Premiazkoa da familia-nekazaritzako erakundeen **parte-hartzea bultzatzea** klimari buruzko eztabaida eta negoziazio- eta finantzazio mekanismoetan funtsezko eragile gisa.
8. **Lurraren jabetzareriko segurtasuna bermatzea** nabarmendu nahi dugu, ezinbesteko oinarria da eta Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko, baita ere 2019-2028 Hamarkadako helburuak, klima-krisiari aurre egiteko, elikadura-sistema jasangarriak bultzatzeko eta herrien elikadura-subirotasun eta segurtasuna lortzeko. Lurraren jabetzarako eskubidea mugatzen duten oztopo legalak, kulturalak eta ekonomikoak gainditzen dituzten estrategiak sendotzea sustatu behar ditugu, bereziki emakume eta gazteentzat.
9. Familia-nekazaritzako **partaidetzako ikerketa eta berrikuntza**-printzipioak goraipatzen ditugu, elikagai osasungarriak modu jasangarrian ekoitzi eta klima-aldaketara egokitzeko egiten duten lanagatik. Familia-nekazariek ikerketa-ziklo osoan jabetasuna eta lidergo zabalerako beharrezko urratsak ematera bultzatzen ditugu.



Ikerketa-arloaren, nekazaritzaren, gizarte zibilaren eta erakunde publikoen artean harreman berriak sortzea eskatzen dugu, elikagai-sistemen trantsizio bideragarria bermatzeko.

10. Hainbat eragileren arteko **sare-lana** indartzearen garrantzia azpimarratzen dugu, besteak beste, gobernuak, nazioarteko erakundeak, familia-nekazarien erakundeak, emakume eta gazteen erakundeak, ikerketa-zentroak, kontsumitzaile eta ingurumenaren erakundeak. Zuloak hausteko deia egin nahi dugu, Hamarkada bultzatzeko konpromiso eta aliantza eraginkorrak sustatzeko eta erronka globalei 2030eko Agendaren ildotik heltzeko. 2030 Agendak ezin izango du arrakastarik lortu familia-nekazaritarik gabe.

Duela bost urte, Nazio Batuek Familia Nekazaritzarako Hamarkada aitortu zuten. Gaur egun, argiak dira familia-nekazarien asmoak eta zehatzak gure proposamenak. Krisiak eta erronkak areagotu ahala, familia-nekazaritzako erakundeak sendotzen doaz munduak behar dituen konponbideei aurre egiteko. Ekintza katalizatzaileak behar ditugu, familia-nekazarien bizitza hobetzeko eta, aldi berean, guztiontzako etorkizun jasangarria bermatzeko.

Konferentziak espazio garrantzitsua eskaini du lorpenei buruz hausnartzeko, hobetzeko beharrezkoak diren arlo eta erronkak identifikatzeko, gaur egunekoak zein berriak, eta maila askotan (nasionala, eskualdekoa eta globala) aurrera egiteko bide sendoa proposatzeko. Esperientziak partekatu ditugu egunotan, guztion nahi eta erreferentziak eraiki ditugu, gizaki guztiontzat bidezkoagoa, oparagoa eta erresilienteagoa den etorkizuna lortzeko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu parte-hartzaile guztiei elkarrizketa honetan hartutako konpromisoagatik eta egindako ekarpenengatik. Ekintza zehatz, partekatu eta solidario bihurtzeko deia egin nahi dugu, familia-nekazaritzaren ekarpena areagotuz jasangarritasuna ereiteko.

Guztiok jaten dugu, guztiok behar dugu Familia Nekazaritza bizitzeko.